

AURKEZPENA

Azken urteetan arazo ugari egon dira, esanguratsuenetakoa klima aldaketaren eragozpena dela pentsatzen dugu. Guk eremu batean zentratu gara, esaterako, garraioak eragiten duten kutsaduran. Garraio hauek erregaiak isurtzen dituzte, esaterako CO₂a. Molekula honek lur planetako atmosfera kutsatzen du, ondorioz atmosfera berotu egiten da eta horrek hondamendi asko eragiten ditu. Arazotaz gehiago konturatzeko, CO₂ isurketak COVID-19a baino heriotza gehiago eragin ditu, sortzen dituen gaixotasunengatik, adibidez, SIDA, Malaria, Tuberkulosia... Ikerketa batzuk egin ondoren kutsatzaile honen isurketa murriztea ezinbestekoa dela uste dugu.

Gu Markel, Beñat eta Ander gara eta "MBO 2.0" taldea osatzen dugu. Urretxu Zumarraga ikastolako bigarren batxilergoko ikasleak gara eta arazo honi irtenbide bat emateko proiektu hau sortu dugu. Gure bizitzan zehar eskolan aldaketa klimatikoari laguntza bat emateko ekintza desberdinak egin ditugu, ekintza hauek oso garrantzitsuak direla uste dugu eta hauen bidez jendea geroz eta gehiago kontzientziatu dela ikusi dugu, baina CO₂ aren arazotaz hitz egin arren ez ditugu irtenbide asko hauteman, jasotzen dugun erantzun bakarra garraio publikoen erabilera murriztea da, baina hori lortu ahal izateko kutsatzen ez duten garraio merkeak behar ditugu.



Konturatu gara azken urtetan 36 milloi tona emititu zirela, 1990. urtean baino %60 gehiago. Atmosfera gure planetako gainazala da, esaterako gure babesa, Eguzki erradiazioen babesa ematen diguna, tenperatura erregulatzen diguna, arnasketan laguntzen diguna... Arazo guzti honi soluzio bat emateko Goierri mailan patinete elektrikoak ahalbidetzea pentsatu dugu. Egia da, mundu mailan irtenbide hau erabiltzen hasi direla, baina Euskal Herrian faltan botatzen dugu, ondorioz, egunero egindako ibilbide gehienak ez lukete kutsatuko.